

Okillomendi Alkate

(EGINTZA BATEKO ANTZERKI JOSTAKIÑA)

PIERRE LARZABAL APAIZAK EGIÑA

Jokalari:—Alkatea, 50 urte, pisu eta larri.

Ana, Alkatearen Andrea, legor eta me.

Meriku Xaarra, zaldun, dotore.

Santxo, kalezaia, edale, jolas-zale.

Ostalari, pisu, bere ustez arin.

Kukutxar, nekazari zaar, zaintsu, azkar.

Joka-leku:—Edozein euskal-etxe-barru.

LENENGO AGERTALDIA

Alkatea eta Emazte Ana

Alkatea.—(*Beatz bat, baso bat uretan bustitzen daukala... Dei beza*):

Ana!... oh Ana!

Ana.—(*Ager bedi*) Zer da?

Alk.—Beatz au naiko bustia da onezkero... Atoz orratzarekin.

A.—(*Argi bat pizturik, eta aren garretan orratza pasatuz, asi bedi beatzari ziztaka*). Ba... ez duzu ezer aundirik, ola, zure beatz orri begira ta begira egoteko.

Alk.—Poliki gero! or xixta ta xixta ari gabe, oiala josten bezela!...

A.—Baietz ba, gizona! Jeeesus! ondo berdiñak zerate gizon danok orratik! ustelak!

Alk.—(*Ixil-une. Emaztea bere lanean ari dala*) Aditu al-duzu ezer iturri ortaz? Bai omen-dira nere kontra diranak, iturri berri ori Eliz-saietsean egiten dudalako. Uste dute nunbait atze-eraziko nautela. Ez dakite ondo nor duten beren Alkate berri. ...Ni, bai, ni... Johannes Okillomendi.

Erakutsiko diet nik or zenbaiti, zer dan Alkate izatea Errian, eta zer dan Alkatearen zer-egiñak ondo betetzea!... Ai! Emazte Ana!... Ari zaitte, ba, goxokiago!...

A.—Orra! ni goxokiago?... Asko zenduan eskua ez ola ibiltzea, zure alkate ta alkate-oste... Ekatzu esku ori argitaraxeago!...

Alk.—(*Miñ, alegia, ta antsika*) Aaaah!!

A.—Orixte da ardo-usaia dariozuna! Zuk orain ere edan duzu ardoa nunbait!

Alk.—Bai, ardoa! Zerako ardoa! zuk giltzapean gordetzen didazun ortakoa!... Ura ta bikarbonato zikin ortatik bai, edan dut nik... Phu! Meriku zozoa! Gibelego miña dudala, eta, ortatik edateko... Eta ortatik bakarrik gero... (*Nazka alegia*) Ura ta bikarbonato!... Phuuu! Pentsatzeak berak ere goranaia ematen dit... Ai, emazte Ana, emazte Ana!...

A.—Ez dakit nik zer edaten duzun; bañan bikarbonato-ur orrek aspaldi ontan ez du botil ortan beheratze aundirik egin... Ez bazendu orrenbeste ardo edango, ez lirake ola gaiztotuko zure xixtako guziak.

Alk.—Ai, aiii!...

A.—Orra, gizona, orra!... Tori; ona nun duzun! Orrenbeste ai, eta orrenbeste ai-ene, ote-arantza txar batengatik. Tori. Busti ezazu beatza berriz ere ur ortan...

Alk.—Bizar-egiteko puskak ere bear ditut.

A.—Ordu ontan bizarra? Nora joateko?

Alk.—Itzuli bat egin bear dut Plazan zear... Ikusi bear dut zer dioten nere iturriaz Santxo Kalezaia esana daukat, arratsaldeko ordubietarako asi dedilla iturri-zuloa egiten, an Eliz-saietsean.

A.—(*Bizar-zapi bat edo, lepotik lotzen diota*) Ba, bai! Zure iturriarekin... aitzaki ederra ba'duzu beintzat zuk, berriz ere ostatura joateko.

Alk.—Ostatura bai... Meriku Xaarrak an arkitzeko gero!... Ostatura!... (*Bizar-labana zorrozten*).

A.—Eta nun egin bear duzu, gero, iturri ori? (*Jaboa gertatzen*).

Alk.—Antxe, Eliz-saietsean, Ama Birjiñaren Aldarearen eskui-aldetik.

A.—Jesus bada-ta! Ez al-zenezakean egin ba Elizatik urrutixeago?

Alk.—Zer?... Zu ere nere kontra?

- A.—Ba... tira... Ez dakit, ba!... Il-erri ta Kanposantua ere an eta... gorputzak eta Letari ta prozesioak ere andik ibilli bear eta... Ez dakit, ba, nik!...
- Alk.—Alperrik da... Nai duzutena esango duzute, zuk eta bes-tek... Iturria an izango da... an. Ola ikusiko duzute danok, Okilomendi'k esana... esana dala gerol!...
- A.—(*Letotik begira*) To, Merikua!... Meriku Xaarra dator! Jes...! Zertara ote-dator?... Esan etzuan, ba, sendatu ziñala? etzala geiago etorriko? (*Ate-joka norbait*). Ekaitzu azkar tresna oiek, gorde ditzadan!... (*Lasterka*) Idekiozu. (*Atera bedi joka-lekutik*).

BIGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Meriku Xaarra

- Alk.—(*Atea idekiaz*) Ara!... Agur, Meriku Xaar Jauna! Zer zabilta emengo aldetik?
- Merik. Xa.—Ez nauk iretzat etorria... Beste gauza batez etorria nauk... Ikusi dudana esan bear diatala...
- Alk.—Zer da, ba? Exeri zaitte...
- M. X.—Ez; ez nauk batere exeriko. Or oartu nauk, Santxo Kalezaia zulo egiten ari dala, Elizaren ondoan, ill-erritik bertan... Eta, an zer ari dan galdetu zioat! Eta, ik agindu-ta, iturri bat egiteko zulo-egiten ari dala erantzun zidak... Pixkaren bat edana ote-dagon iruditu zaidak, oitura ez galtzeko... Eta zernai esan-da, bidali egin diat andik... Esazak eta, ez uan ba ik aginduko toki artan iturri bat egitea!?
- Alk.—Zergatik ez ba?
- M. X.—Motell, ez al-duk ikusten toki ura ia ill-erria ber-bera dana? Erri guzia pozoitu ta benenatu egin nai al-duk, ala zer? Zer uste duk, ill-ezurrez saltsatutako ura zanga-zanga edan ditekeala? Ederra izango uke orixe...
- Alk.—Ba... ba... Ez dakit ba. Iñork, orain arte, ez dit olakorik aipatu!...
- M. X.—Ori, motell, etzegok aipatu bearrik. Orko ura, "ill-gazura" izango duk... Alkatearen egitekoa duk ori, bañan toki ortan iturri batek ez dik itxurarik!... Eta? nola diagu gibel ori nik emandako botikarekin?
- Alk.—Obeto, obeto, Meriku Jauna.
- M. X.—(*Bikarbonato-botillari begiratzuz*) Huum! Ez duk asko

edan ur ortatik. Artzen al-duk, gero, basokada bat ona otordu-ondo guztietan! Eta utzi, alde batera, ardo ta gañerakoak...

Alk.—Uzten ditut, uzten ditut, Meriku Jauna! Eta, bearko utzi nik dudan emaztearekin!

M. X.—Arrazoi dik ortan emazteak... Eta... esanak esan... Euorrek ikusi! Eta arratsalde on!

Alk.—Arratsalde on, Meriku Jauna...

IRUGARREN AGERTALDIA

Alkatea bakarrik

(*Bakarrik*) Demoninua! Ondo botika zikin ori neri edan-erazi bearrez ari zerate! Beheratuko diat botill ori, beheratu bear ba-du!... (*Ixuri beza botika puska bat lore-ontzi batera*) To; edan zak ik nere partea... Phu zikiña!... Ba'zeukat ori baño oberik ortxe, gordairuan... (*Eskui ta ezker begiratuz, atera beza botilla-bat-ardo polaina aundi baten barrutik, eta edan beza*) Au bai, au, benetako botika! Onek, bedren, biotza pixka bat ukitzen zidak (*Anka-otsa entzunik, sar beza laster-laster botilla bere gordegian*).

LAUGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Emazte Ana

Ana.—(*Sartzean, oartzen da bear ez dan zerbait gertatzen dela*) Jes...! Zer ari zifian or?

Alk.—Utsa, utsa!... Nere eiztari-botai begira nengon... Ok ere aspalditxoan ez ditudala soñean jantzi...

A.—(*Ez dirudi sinesten dionik*). Merikua azkar joan da?... Atoz, bizar-zapia lotu deizudan... Hemmm! Bikarbonato-botillari, orratik, oraingoan tanga polita eman diozu?

Alk.—Utzaiozu pakean botillari! Meriku deabrua! Edateko ta edateko!... Phuuu! Ekaitzu bizar-egitekoak.

A.—An dituzu, sukaldeostean. Obe duzu bizarra an bertan egitea. Inor etortzen ba-da ere, lasaiago ariko zera. (*Atera bedi Alkatea*).

BOSTGARREN AGERTALDIA

Emazte Ana bakarrik

(Pentsa ta saia, saia eta pentsa, azkenean topa beza ardo-botilla; eta aren orde z sar beza polaina-barruan bikarbonato-botilla. Ardo-botilla, mai-gañean).

Gizonak, bai, gizonak!... politak zerate. Ba'nngon, ba, nundik zuan ardo-usai ura! Gizagajoa! ikusi nai nuke orain nolako aurpegia ipiñiko duan gure gizonak, ardo uste-ta, ur zuri ortatik txurrut bat egiten duanean. *(Atean otsa)* Ara! Santxo kalezaia... Aizu, Johanes, Santxo da or.

Alk.—*(Barrutik)* Sartu dedilla!

SEIGARREN AGERTALDIA

Emazte Ana ta Santxo Kalezaia

A.—*(Botilla-ardoa eskuetan artu beza)* Auxe gorde bear nuke ba... Nor da?

Santx.—Santxo da emen. Idekizazu.

A.—*(Idekiz)* Zer?... Zu emen ordu ontan? Zer egin zera? berriz ere lanarekin samurtu?

S.—*(Pala bat eta zaku bat bizkarrean)* Barkatu, Alkate-andrea. Nik ez dut zugandik ezer nai. Ni ez naiz zure mendeko. Ni Alkate Jaunaren mendeko naiz bakarrik.

A.—Zu Alkate Jaunaren mendeko izango zera, bañan sala au nere mendeko bait-da, pala ori kanpoan utziko duzu.

S.—*(Esana egiñaz)* Ondo da... Ba'dakit saloi lustreatutarako zarpailtxo naizena. Zer? bildur al zera gero? nere galtza-petralekin zure silloi ederrak zikinduko ditudan bildur? Ez bildur izan, Alkate Andrea. Ez ditut zikinduko... Lurrean eseriko naiz *(Eseri bedi lurrean)*. Lurreko ola berderen opako al-didazu... Ez dizut edatekorik eskatuko ere Ba'dakit, berdin, gogoz emango ez didazuna. Ba'dut edatekoa neronek. Ona emen. *(Edan beza botilla-ututik)*. On daizula!... Eta ogia ta gazta ere ba'ditut emen, gose naizenean jateko *(Atera bitza zakutik, eta jan)*.

ZAZPIGARREN AGERTALDIA

Lenak eta Alkatea

Alk.—(*Ager bedi, bizarra erdi-egiña, Anak gorde beza botill-
ardoa mantalpean*). To, i al-intzan olako berriketan?
(*Emazteari*) Onengatik bizar-pizarri au emen bertan ken-
duko dut (*Biñoa ixpillu ta bizar-laban billa*).

A.—Ondo da... Mai-gaña ustuko dizut, eta zure puskak ortxe
ezarriko dituzu. (*Maia ustua beza, eta atera bedi*).

ZORTZIGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Santxo

Alk.—(*Sartzen da*) Ementxe ezarriko dizkiat (*Jarri bedi bizar-
egiteko eran*). ...Ta... Santxo, zertara etorria intzan?

S.—(*Aoa betea*) Alkate Jauna... Alkate Jauna: erri onetan
zeñek agintzen duan nai nuke jakin.

Alk.—Ik, erriko langille izan-da, nork agintzen dikan ez dakik?

S.—Ez-ta tutik ere. Kanean, lendabizi zu, ta gero Meriku Xaa-
rra joan zakizkirate agintzera... Onera sartuta, berriz,
zure Alkate-Madama ori izan dut agintari.

Alk.—Zer esan dik Meriku Xaarrak?

S.—Ba... iturririk an ez egiteko. Ango ura pozoitua dala, Nola
esan dit ba?... Ah?... bai. Ango ura ildakoen ezurretatik
sortutako "gazura" dala... Phuuu... zikiña! (*Ardotik edan
beza*). Pentsatzeak berak ere nazkatzen nau, zer pestikeri
sortu bear duan putzu artatik.

Alk.—Tira, Santxo; ondo zegok... Merikuak arrazoi dik. Eta,
asitako putzua estali ezak, bai, eta, beste bat zulatzen
asi adi, beste toki batean.

S.—Beste toki batean? Nun?

Alk.—Kukutxarrek ba'dik or baratza txiki bat, batere begira-
tzen ez diona; antxe asi adi; egizak zulo eder bat erdi-
erdian.

S.—Plaza-baztarreko baratzean?

Alk.—Antxe bertan... Baratza ura, Erri-lurrean duk. Kukutxar
nere aurreko Alkatearekin ondotoxo etortzen bait-zan, ba-
ratza ori olaxe-olaxe berekotu zian... Eta geroztik or zeu-
kak, berea alegia, iñori errentarik eman gabe.

S.—(*Buruari bi eskuz elduoz*) Oi, oi, oi! tximistak eta tru-
moiak izango ditugu oraingoan. Azkeneko *bototan*, ni

zure alde mintzatu-ta, zartadako bat eman zidan Kuku-
txarrek; oraingoa, ikusten ba- nau... obeko dut... "Nere
Jesukristo Jauna" esan...

Alk.—Ez adilla bildurtu... Egizak dana nere bizkar... Eta esaiok,
nik agindu-ta ari aizela an... Eta ezer nai ba-du, etorri
dedilla nigana.

S.—Bai, bai. Olaxe esango diot.

Alk.—Tira: oa orain lanera.

S.—(*Aleratzean*) Zeruko Jauna! arren, gaur arratsean nere
buruau bi belarri aundi oen erdian izango al-da. Biotan
bat Kukutxarrek bere atzaparretaratzen ba-du, belarri
gabe gelditzen nauk... Eta gaitz-erdi ozka erasotzen ez
ba-digu. Oi, Oi, Oi!...

BEDERATZIGARREN AGERTALDIA

Alkatea, ta gero Ostalaria

Alk.—(*Bakarrik. Bizar-egiteko puskak biltzen*). Orain ezagutuko
ditek erri ontan nor dan J o h a n e s O k i l o m e n d i...
Lengo Alkate txaldanarekin, sobraare, bakoitzak nai zuna
egiteko oitura artua ziten... Azken mintzaten zanak, arek
zian beti arrazoi... Olakorik ez nerekin!... Kukutxar! Ah
Kukutxar!... Ni Kukutxar'en bildur? Ez duk bein ere
okilloa kukuaren bildur izan...! Eta ainbat gaiztoago
arentzat... Askok zian bere burua ez ola erakustea nere
kontra azkeneko botoetan... Huum! Oraintxe zintzurra
ere legortua diat... eta ardo-txurrut bat ez nikek kalte...
(*Inguruetara begiratuta, atera beza botilla polainatik, eta
edan... Muzin-arpegi ipiñi beza*) Phuu! Phuuu! Zer zikin-
keri da botilla ontan? Ah, deábruaren figura!... Atso de-
moniñua! Topatu dik nere gordairua. Phu! Benetako gaiz-
toa ez ba-duk gero emakume-jende au! (*Otsa atean*). To,
norbait atean, porru-jorra obeto egiteko! Tira, dagola da-
na bertan. (*Sar beza botilla polaina-barruan*). Aurrera!
aurrera!

AMARGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Ostalari. Gero Ana Emaztea

Alk.—(*Sar bedi Ostalari*). To, Ostalari! Nere soldaru-lagun gai-
zoa; i al intzan?... Nun abil emen? Eseri adi, eseri!

- Ost.—(*Txutik eta itzal*) Johanes, pozik nauk... Pozik nadukak... Azkenean ba'diagu Alkate bat Errian! Eta botilla bat nappar, kaxka-gorri oietako, elkarrekin edan bear dugulata etorri nauk. Baso bi bai aldituk inguruan?
- Alk.—Bai, ementxe ditiat (*Ekarri bitza maiera*).
- Ost.—Ah, demoniñua! Kortxo-ateratzekoa aztu zaidak.
- Alk.—Arrano, arranoa! (*Oiu egin beza*) Ana! Ekatzu kortxoginbeleta bat onera. (*Eseri bitez biok*).
- Ost.—Bai, pozik nauk iturri ortaz... Ikusi diat Santxo, zulo egiten... Ortxe zegok ederki.
- Ana.—(*Sar bedi*). Agur, Ostalari: emengo aldi?
- Ost.—Bo. Itz bi egitera etorria... Ah, or duzu kortxo-ateratzekoa? Torizu botilla. Aterako duzu zerorrek. (*Eman bezaio botilla Ana'ri*).
- Alk.—Jakingo duk, noski, Kukutxarren baratzean egitera goazela.
- Ost.—(*Bizi-bizi*) Kukutxarren baratzean? Ez baldin-bait! Elizsaietsean ikusi diat ba nik Santxo lur-zulatzen...
- Alk.—Bai, bañan geroztik beste gogorik diat. Merikuak ere orixe esan zidak: ill-errian ez dagola ondo ta...
- Ost.—(*Basoa betetzen asi bedi*).
- Ana.—(*Baso-erdi bete duanean*) Tira: asko du erdi bat.
- Ost.—Zer? erdi bat? Utzaiozu, emakumea, gizonari. Ba'du basoak berak bere neurri.
- Ana.—Ez du bear geiago. Merikuak biziki debekatua daukio.
- Alk.—Bai, merikuak! Merikuaren eta Emaztearen esanari kasu asko egin izan banio nere bizian, arrak mantentzera joana nindukan onezkero aspaldi.
- Ost.—Utzaiozu, emakumea, baso orri... To! edantzak lasai. Au, kaxkagorria duk; kortxoduna. Ez dik onek kalterik egingo.
- Ana.—(*Asarre bizian, gorri-gorri, bija polainetara... Alkateak keñu egin bezaio Ostalariari, Anari begira dezaion. Anak bikarbonato-botilla ar beza eskuan, eta ipiñi mai-gañean, asarre*). Tori! Naastu ezaiozute botilla ontatik ardo orri.
- Ost.—Nun demontretik aterá duzu botilla ori? Zapata-barrua al duzu armario?
- Alk.—Bai; emakume jende onek izaten dizkik olako ixil-txokoak.
- Ana.—(*Txorrotx*) Ixil-txokoak, bai;... gizonak erakutsiak... (*Atera bedi. Gizonak edan bezate*).
- Ost.—Aizak. Mesede bat egin bear didak. Ez eiokela Meriku

Xaar orri kasurik egin, eta egin ezak iturria, antxe, leengo lekuan.

Alk.—Ara ba: Kukutxarren baratzen egitera ninjoaken... Kuku-txar orrek ikusi zezan, alegia, zenbat kostatzen dan o'ala boto-egunetan nere kontra bere burua crakustea...

Ost.—Aizak. Ik eta nik ez diagu iñoiz elkar saldu... Ba'dakik, boto-egunetan nolako serbitzuak egin dizkikan iri nere ostatuak! (*Ixil-mixilka, belarrira*) Eta gañera iturri ori, an Elizaren saietsean egiten ba-duk, nere ostatuaren aurrean alegia, iturrira dijoan jendea, nere ostatura ere bilduko duk... Ikušten duk neretzako ze ondoren ederra?... Ire ta nere onerako duk iturri ori len asmatutako tokian egitea.

Alk.—(*Oso ro limurtua*) Bai, eta bai, Ez duk geiago esan bearrik. Konpreintu diat... konpreintu diat. Itz ematen diat: iturria, ik nai dukan lekuan izango duk... eta ez beste iñon. Or nere itza! Eta Okilok itz emana, itz emana duk gero!

Ost.—Millesker, adiskide! Ez nian besterik espero iregandik... To... edantzak beste bein ere!... I eta ni, egundañoko adiskideak gaituk gero! (*Topa egiñez, edan bezate biok*).

Alk.—Esan bezela, iretzat nere itza!

Ost.—Ondo zegok... Botilla-ondar ori gorde, afaltzeko... Ta laister arte. Pasatzean, sartu-atera bat egin ezak ostatuan.

Alk.—Ba, bai. Etzegok gaizki. Joango nauk azkoneko berriakin. (*Ostalari atera bedi*).

AMAIKAGARREN AGERTALDIA

Alkatea bakarrik. Gero Emazte Ana

Alk.—Santxo arrapatzera joan bear diat lenen-lenengo. Agian ez uan Kukutxarrera zuzenean joango... Gero, berriaz,... ah? orain beintzat botilla gorde, emaztea etorri baño len. Nun ezik... (*Nun gorde pentsatzen*). ...Ez, polainan ez!... Ori ba'zekik!... To! ba'zekiat nun: laister arte ortxe egongo duk gordeena, zintzilik dagon zamarra aundi orren sakelean. (*An, pertxan, ezartzen ari dala, betor ixilka emaztea eta geldi bedi gizonaren maltzurkeriari begira*).

Ana.—(*Orroka, asarre alegia, bultza bezela egiñaz gizonari*) Ah! ah!! ah!!! Ederki ari zera zu orain ere!... Miaztu duzu

ongitxo botilla-muturra! Eta gero zer? nork eraman bear ditu zure edanaren ondorioak? Jakiña! Anak! Nik! Etor-tzea duzu gero antsika ta intzirika, *ih* emendik eta *ah* andik... (*Gizonarenak egiñaz*) “Merikua ekatzu, merikua”... Ez duzu lanik; alperrik ari zera, ardo eder ori ezin gorderik. (*Kendu bezaio botilla eskutik*) Emen eukiko duzu, nai ba-duzu; ementxe, botikaren ondoan. Ortxe, agerian egongo dira botilla biak... Eta ikusiko dugu, bietan zein lenengo ustutzen duzun. (*Atea jo bezate*). Ara! orain ere ba’dugu beste norbait!... Zu alkate sartu-ezkero, beintzat, ba’da etxe bedeinkatu ontan ate-ots eta bisitaririk; ez dezakegula izan minutu bateko atsedenic! Jee-sus! Alkate ta malkate, gauza politak izango dira seguru... Nai duanarentzat! Nik, beintzat, bi txanponetan salduko nituzke pozik, bai bata bai bestea... Joaten al-zera idekitzera zerori... (*Atera bedi*).

AMABIGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Kukutxar

- Alk.—(*Atea idekiz*) To! Kukutxar, zu emen?... Exeri zaite, exeri...
- Kuk.—(*Oiu zorrotz, asarre*) Kukutxar, bai, Kukutxar emen... Uste al-uan, ba, Santxo txakurra neri ozka egitera bidali ta, ni “otx!” esan gabe geldituko nintzana?
- Alk.—Gizona! goza zaite!... Elkar adi dezagun!
- Kuk.—Aditurik asko zegok len ere! I, aizen bezelako bare-kurkullu ori! Zer uste duk? Alkate aizela ta, errian nai dukan guztia egingo dukala?
- Alk.—(*Zorrotz bera ere*). Errespetatzen nazazu gero! Bestela nik errespetatzen dut nere burua. Ikusiko duzu, alkate-makilla eskuan artzen ba-dut.
- Kuk.—Alkate-makilla? alkate-makilla?... Akullua esazak, akullu aundi bat... Aretxek emango dik ederkien ire eskuan, ez alkate-makillak...
- Alk.—Esazu herriz olakorik! esan beste-bein!
- Kuk.—Sar adi i ere, sar, nere baratzean, eure iturri ta miturri. Ikusiko duk zer gertatuko zaiken.
- Alk.—Zure baratza, erri-lurrean da, Kukutxar. Nik or iturria nai dudanean egingo dut... nai dudanean.
- Kuk.—Egintzak, egin... Bafian pentsa ezakek, ik iturria egiten

ba-duk, besteren bat ere izango dala gobara ta lixiba pres-
tatuko duanik.

Alk.—Presta ezazu nai duzuna... Ikusiko dugu nor ateratzen dan
nagusi... Eta orain zoaz kanpora!

Kuk.—Ba'nijoak... Bidali egiten nauk. Bañan jakin ezak, beste
norbait ere nik beste nunbaitetik bidaliko dudala orain-
dik. (*Atera bedi. Alkatea, unetxo batean, bakarririk*).

AMAIRUGARREN AGERTALDIA

Alkatea ta Ana Emaztea

Ana.—(*Sar bedi*) Jess... Zer zuan gizon orrek olako trumoietan?
Ez al-duzu ba, arren, orren baratzean iturria egiten!

Alk.—Ez... Ez nuan ala egingo. Bañan orain besterik izango da...
Kukutxarrekk nai edo ez nai, iturria antxe izango du...
An, bere baratzearen erdi-erdian... Nik erakutsiko diot
Kukutxarrerri nor dan Alkate, Erri ontan. (*Asi bedi oñe-
tako-jazten*).

Ana.—(*Patata-txuritzen*). Ja! ja!! ja!!! (*Irri zorrotz*). Ba'dakizu
zer esan zidan bein norbaitek gizon batentzat, ezkontzari
buruz gizon aren berri eskatu nionean?

Alk.—Zer esan zizun, ba, tira, gizon arentzat?

Ana.—Gizon ura etzala ez zaldi, ez asto.

Alk.—(*Algara bizian*) Mando zala, beraz?

Ana.—Ez, ez... Etzan, erabat, astoa bezain asto; ez eta, erabat,
zaldia bezain bizkor ere. Ba'zuan bietatik; bañan etzan
mando. Mando baño gutxiago zan.

Alk.—Zer zan, ba?

Ana.—Orixen... Orain asto, ta gero zaldi... Ta gero zaldi; eta,
ondotik, herriz ere, asto. Eta ola beti, salto ta jauzika:
astotik zaldira, ta zalditik astora...

Alk.—Gizagajoa! Izango zuan nunbait lanik asko bizi izaten eta
danona egiten, ola baldin ba-zan!

Ana.—Ondo ala ere! Ba'zuan, bai, lanik asko gizagajoak, bizi
izaten eta danona egiten... Bañan, bai al-dakizu nor zan
alako gizon ura?

Alk.—Nor zan, ba, alako gizagajoa?

Ana.—Ooorra ba! ta (*Oin-muturretan eta sorbaldak goitituz*)...
ni nintzala aren emazte-bearra!

Oiala beera.

Sokoa, 1952-XII.